



**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIKO UDALA
Esp. 2021FAUL0004**

Udal honetako behin-behineko Kontu-hartzailea naizen honek, 2020ko Pasaia Udaleko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egiten dut, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzak 2019ko azaroaren 26an hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Pasaia Udaleko 2020ko aurrekontua, 2020ko urtarrilaren 13an GAO-n argitaratu zena. Udal honetako aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehatzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	20.846.436,00
Kreditu gaikuntzak:.....	670.538,19
Kreditu txertaketak:.....	1.619.324,24
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu gehigarriak:.....	623.400,00
Behin betiko aurrekontua:.....	<u>23.759.698,43</u>

2020ko aurrekontuaren bilakaera eta exekuzioa guztiz baldintzatuta egon da COVID-ak sortutako eraginengatik:

- Batetik zenbait kreditu aldaketa egin behar izan dira **ezohiko laguntzak** bideratzeko.
- Foru funtsaren %20-25 arteko beherakada aurreikusi zuen Foru Aldundiak, eta hiruhileko ekarpenak %20an murriztu. Azkenean ordea 2020ko zergabilketa ez da horrenbeste murriztu eta **Foru funtsaren sarrerak %10,11 jaitsi dira aurrekontutik**. Likidazioa 2021eko otsailaren erdialdera jaso da.
- Ekonomian sortutako ziurgabetasunak gastuetan zuhurtzia handiz jokatzea eragin du, eta foru funtsaren bilakaera amaieran hain negatiboa ez izan arren, ea urte amaiera arte ez da aurreikuspena aldatu.

Sarreraren ikuspegitik, inpaktu negatiboa izan duen beste faktore garrantzitsu bat kontuan hartu behar da **Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren 2017-2019 epeagatik Pasaia Udaleko Agintaritzari egin beharreko itzulketak** eta 2020ko aurreikusitakoak baino sarrera txikiagoengatik izatea. Auzitegiek arrazoi eman diote PPA eta 2012tik datorren arazoari ez zaio oraindik ere konponbidea eman.

Azkenik aipatzekoa da Pasaia Udalbatzak, 2020ko uztailaren 15eko bilkuran, **Pasaia Zaharren Udal Egoitza Fundazio Publikoa erakunde autonomoa desegiteari** hasierako onarpena eman zion eta Erakunde Autonomo honen behin betiko disoluzioa eta likidazioa onartu zela 2020ko irailaren 30eko ondorio datarekin. Hori dela eta urriaren 1etik aurrera, erakunde autonomoak ematen zituen bi zerbitzu udalera pasatu ziren eta beraz horretarako kontusailak udalean txertatu ziren eta bere exekuzioa sartuta dago datu hauetan. Azkenik disoluzioko ondorengo gerakina Udaleko gerakinera gehitu da eta bestalde egoitzaren ondare garbia udaleko kontabilitatean txertatu zen, urteko kontuetan islatuko dena.

ESKUB6575c3-3e17-475b-bea6-c3e82d70976f

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2020 EKITALDIA			2019 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	9.641.132,00	9.339.269,45	96,87	9.220.595,18	9.118.208,20	98,89
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	7.551.264,49	5.993.951,00	79,38	7.421.248,61	6.638.381,48	89,45
3 - Finantza gastuak	75.600,00	74.886,59	99,06	11.600,00	9.437,70	81,36
4 - Transferentzia arruntak	3.303.211,14	2.852.818,18	86,36	2.979.647,41	2.960.898,36	99,37
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	50.000,00	0,00	0,00	78.300,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	2.366.613,47	705.009,54	29,79	2.736.007,00	1.274.660,16	46,59
7 - Kapital transferentziak	315.650,00	43.455,08	13,77	120.200,00	20.187,04	16,79
8 - Finantza aktiboak	16.227,33	16.227,33	100,00	16.227,33	16.227,33	100,00
9 - Finantza pasiboak	440.000,00	436.660,64	99,24	481.500,00	481.272,20	99,95
GUZTIRA	23.759.698,43	19.462.277,81	81,91	23.065.325,53	20.519.272,47	88,96

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean duen garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

- Pertsonal gastuak %96,87an exekutatu dira. Aipatu behar da hasierako aurrekontuan ez zegoela aurreikusita soldata igoera, 2019ko abenduan onartu baitzen, baina hasierako kredituak gehitu gabe aurre egin zaio. Kontuan hartu behar da, Covid-a dela eta aurrekontuko gastuen atalean zuhurtzia handiz jokatu dela eta kontusail batzuk exekuzio apala izan dutela (ordezkapenak, programa zehatz batzuk).
- Gastu arruntan, transferentzien eta inbertsio ataletan ere zuhurtzia handiz jokatu da 2020 urtean, aurrez azaldutako arrazoiagatik, beraz ohikoa baino exekuzio maila apalagoa izan dute kapitulu hauek, bai aurrekontuarekin alderatuta eta baita aurreko urteko exekuzioarekin alderatuta.
- Bestalde kapitalezko transferentziak oso exekuzio baxua izan du, ekarpen nagusia Donibaneko saneamenduari erantzuteko helburua zuelako, eta proiektu hori atzeratu egin delako. 2021 urtean txertatzea aurreikusten da.

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2020 EKITALDIA		2019 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligazio onartuak (O fasea)	705.009,54	29,79	1.274.660,16	46,59
Gastu erabiliak (D fasea)	998.599,35	42,20	1.623.459,15	59,34
Gastu baimenduak (A fasea)	1.850.161,40	78,18	2.600.804,06	95,06
Kredituak, guztira	2.366.613,47	100,00	2.736.007,00	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea murriztu dela, COVID egoerak sarreretan sortu zuen ziurgabetasunari erantzuteko exekuzioan murrizketak egin direlako.

**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
 PASAIKO UDALA
 Esp. 2021FAUL0004**

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:

KAPITULUA	2020 EKITALDIA			2019 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	9.339.269,45	9.334.794,01	99,95	9.118.208,20	9.102.192,97	99,82
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	5.993.951,00	5.416.215,95	90,36	6.638.381,48	5.921.297,05	89,20
3 - Finantza gastuak	74.886,59	74.886,59	100,00	9.437,70	9.251,45	98,03
4 - Transferentzia arruntak	2.852.818,18	2.352.635,75	82,47	2.960.898,36	2.455.011,45	82,91
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	705.009,54	503.604,01	71,43	1.274.660,16	1.096.120,11	85,99
7 - Kapital transferentziak	43.455,08	31.446,44	72,37	20.187,04	20.062,34	99,38
8 - Finantza aktiboak	16.227,33	16.227,33	100,00	16.227,33	16.227,33	100,00
9 - Finantza pasiboak	436.660,64	436.660,64	100,00	481.272,20	481.272,20	100,00
GUZTIRA	19.462.277,81	18.166.470,72	93,34	20.519.272,47	19.101.434,90	93,09

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarrerren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2020 EKITALDIA			2019 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	4.243.990,00	3.368.170,53	79,36	3.993.660,00	4.223.741,10	105,76
2 - Zeharkako zergak	135.000,00	265.883,86	196,95	135.000,00	139.707,40	103,49
3 - Tasak eta bestelako zergak	3.358.398,23	3.212.980,93	95,67	3.426.641,70	3.507.505,14	102,36
4 - Transferentzia arruntak	13.261.981,92	12.272.177,85	92,54	12.608.526,09	13.124.770,40	104,09
5 - Ondare sarrerak	163.900,00	201.322,45	122,83	146.900,00	183.626,25	125,00
6 - Inbertsio errealak besterentzea	0,00	376.250,00	376,250,00	0,00	52.012,37	52,012,37
7 - Kapital transferentziak	472.957,48	417.032,91	88,18	580.949,71	503.838,94	86,73
8 - Finantza aktiboak	2.123.470,80	16.227,33	0,76	2.173.648,03	16.227,33	0,75
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	23.759.698,43	20.130.045,86	84,72	23.065.325,53	21.751.428,93	94,30

Oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea baxua izan dela %84,72arekin. Kopuruetan duten garrantziagatik ondorengoak aipatuko ditugu:

- Zuzeneko zergek %79,36ko exekuzio maila izan dute, sarrerren aipatu bezala, OHZagatik APPari egin beharreko itzulketek balio katastralen inguruko epaiengatik zeharo baldintzatu dute 1. kapitulua. Gainontzeko zergen exekuzioa egokia izan da. Zeharkako zergek exekuzio altua izan dute (%196,95) eta aurreikuspenak ia bikoiztu dira.
- Transferentzia arruntetan %92,54 exekuzioa lortu da, aipatu den bezala Foru Funtzaren jaitsiera nabarmenak aurrekontuarekiko (-10.11%) eragina izan du eta. Dena dela Foru Aldunditik egindako hasierako aurreikuspen negatiboak (-%20-25 jaitsiera) ez dira bete azkenean.
- Inbertsio errealak besterentzeko atalean Jaraunspen bategatik jasotako ondasunaren salmenta dago jasota.

4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2020 EKITALDIA			2019 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	3.368.170,53	2.957.329,47	87,80	4.223.741,10	3.954.489,96	93,63
2 - Zeharkako zergak	265.883,86	185.000,08	69,58	139.707,40	103.350,08	73,98
3 - Tasak eta bestelako zergak	3.212.980,93	2.929.370,79	91,17	3.507.505,14	3.263.206,42	93,03
4 - Transferentzia arruntak	12.272.177,85	11.291.331,06	92,01	13.124.770,40	12.440.887,32	94,79
5 - Ondare sarrerak	201.322,45	181.933,60	90,37	183.626,25	152.019,43	82,79
6 - Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	376.250,00	376.250,00	100,00	52.012,37	52.012,37	100,00
7 - Kapital transferentziak	417.032,91	53.612,92	12,86	503.838,94	0,00	0,00
8 - Finantza aktiboak	16.227,33	4.732,98	29,17	16.227,33	6.761,40	41,67
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	20.130.045,86	17.979.560,90	89,32	21.751.428,93	19.972.726,98	91,82

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJEA
2017	453,75	0,00	453,75	0,00	100,00
2018	50.922,78	0,00	50.922,78	0,00	100,00
2019	1.366.461,04	0,00	1.366.461,04	0,00	100,00
GUZTIRA	1.417.837,57	0,00	1.417.837,57	0,00	100,00

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZENTAJEA
2000	48.733,76	0,00	1.465,11	47.268,65	3,00
2005	88,50	0,00	19,31	69,19	22,00
2006	978,93	6,80	784,90	187,23	80,00
2007	1.302,85	0,00	387,14	915,71	30,00
2008	3.495,36	0,00	311,31	3.184,05	9,00
2009	4.203,95	6,62	514,39	3.682,94	12,00
2010	7.528,05	582,75	836,96	6.108,34	11,00
2011	18.990,79	1.474,08	842,79	16.673,92	4,00
2012	20.511,87	2.225,19	2.004,33	16.282,35	10,00
2013	95.699,25	14.489,20	13.833,38	67.376,67	14,00
2014	871.674,67	10.121,20	4.331,00	857.222,47	0,00
2015	97.029,96	9.586,60	5.084,35	82.359,01	5,00
2016	112.853,45	1.789,56	13.839,01	97.224,88	12,00
2017	125.988,73	955,77	18.953,38	106.079,58	15,00
2018	243.302,44	2.292,63	39.198,24	201.811,57	16,00
2019	1.778.701,95	13.227,17	1.531.611,69	233.863,09	86,00
GUZTIRA	3.431.084,51	56.757,57	1.634.017,29	1.740.309,65	47,62



**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
 PASAIKO UDALA
 Esp. 2021FAUL0004**

Itxitako ekitaldietatik datozen eta abenduaren 31n kobratu gabeko saldoen artean, ondoko kontzeptuak azpimarratu behar dira, guztien artean guztiko honen %76,13 azaltzen dutenak.

- Hirigintza aprobetxamenduak 2014 (hartzekodunen konkurtsoa) 742.388,74 euro kopuru osoaren %42,66 osatzen duena.
- Isunak hainbat ekitaldietatik datozenak, 206.367,55 euro.
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, hainbat ekitaldietatik eratorria, 132.747,13 euro.
- Ibilgailuen Zerga, hainbat ekitaldietatik eratorria, 134.696,42 euro.
- Plusbalioak, hainbat ekitaldietatik eratorriak, 108.666,77 euro.

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED · DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
02.227.07.241.01	MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANA IDAZTE	250,00	0,00
02.227.07.433.00	SENZIBILIZAZIO KANPAINA, MERKATARITZA-OST	15.000,00	7.435,45
02.361.01.931.00	ATZERATZE INTERESAK	16.000,00	15.553,43
02.470.01.433.00	OARSOALDEA: URTEKO EKARPENA-ENPRESA EKIN	11.800,00	2.285,48
02.471.01.433.00	LAGUNTZA ZUZENAK- COVID	250.000,00	158.815,20
02.480.01.433.00	BONOAK-COVID	50.000,00	30.930,00
03.624.01.132.01	IBILGAILUA UDALTZAINGOA	26.000,00	24.390,01
03.629.01.132.01	SEGURTASUN KAMARAK ETA INSTALAZIOAK	51.500,00	0,00
04.480.02.231.02	LARRIALDI SOZIALEKO GASTUAK	30.000,00	0,00
05.480.01.326.10	ESKOLARALAI DIRULAGUNTZAK - COVID	35.000,00	1.790,76
07.470.01.912.00	ITSAS FESTIBALA 2020	1.649,40	0,00
08.227.07.151.00	KEEL IKERKETA ETA LAN TEKNIKOAK	4.506,04	0,00
08.227.07.151.00	KEEL IKERKETA ETA LAN TEKNIKOAK	2.178,00	0,00
08.227.07.151.00	KEEL IKERKETA ETA LAN TEKNIKOAK	16.698,00	16.698,00
08.609.02.151.02	HIRI EREMUEAN URBANIZAZIOA	40.000,00	0,00
08.609.02.151.02	HIRI EREMUEAN URBANIZAZIOA	50.000,00	0,00
08.642.01.151.00	PLAN OROKORRA	90.000,00	0,00
08.642.01.151.00	PLAN OROKORRA	6.627,75	0,00
08.643.01.151.00	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	726,00	0,00
08.643.01.151.00	PROIEKTUAK ETA ZUZENDARITZAK	20.267,50	12.947,00
08.712.01.151.02	EKARPENA DONIBANEKO ARAZKETA	100.000,00	0,00
09.210.01.160.00	KMK SANEAMENDU SAREA	10.223,75	0,00
09.211.01.231.08	KMK ERAIKINAK ETA GAINEKO ERAINKUNTZAK	2.018,89	2.018,88
09.211.01.326.10	KMK ERAIKINAK ETA GAINERAKO ERAIKUNTZAK	48.000,00	33.896,67
09.212.01.165.00	KMK MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK	1.979,56	1.979,56
09.212.01.334.01	KMK MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK	791,34	0,00
09.221.02.160.00	SANEAMENDUA	29.728,72	29.728,72
09.221.02.161.00	UR HORNIDURA	36.955,24	36.955,24
09.221.02.166.00	ARAZKETA	26.356,52	23.960,47
09.221.05.153.40	JANTZIAK	14.685,98	14.685,98
09.221.05.163.00	JANTZIAK	7.603,57	7.491,30
09.221.98.162.10	POLTSA KONPOSTAGARRIAK	15.000,00	11.785,77
09.227.07.153.40	KEEL IKERKETA, AHOLKULARITZA ETA LAN TEKN	3.025,00	3.025,00
09.227.88.231.08	KEEL BEROGAILUA	2.558,25	1.594,48
09.227.88.326.10	KEEL BEROGAILUA	6.196,43	5.152,80

ESKUB6575c3-3e17-475b-bca6-c3e82d70976f

09.227.89.334.01	KEEL BEROGAILUA	289,50	219,92
09.227.99.160.00	KEEL SANEAMENDU-SAREEN MANTENTZE LANAK	1.000,00	1.000,00
09.227.99.162.10	KEEL HONDAKIN BILKETA JARRAIPEN SISTEMA	17.100,00	0,00
09.227.99.341.00	KEEL BEROGAILUA	3.419,89	0,00
09.227.99.342.01	KEEL BEROGAILUA	8.334,48	5.082,00
09.227.99.933.00	KEEL UDAL EGOITZEN MANTENTZEA	4.806,95	1.267,48
09.609.03.153.00	HAUR-PARKEAK	25.137,31	0,00
09.609.04.153.00	PRESAZKO SEGURTASUN LANAK LOURDES TXIKIN	45.000,00	35.084,03
09.622.01.132.01	UDALTZAINGOA ALDAGELAK	7.279,35	7.279,35
09.624.01.163.00	IBILGAILUA KALE GARBIKETA	40.000,00	0,00
10.226.99.335.00	EUSKARA SUSTATZEKO JARDUERAK	7.260,00	7.260,00
11.227.18.231.09	JABEKUNTZA ESKOLA	1.210,00	1.210,00
12.214.01.920.01	ALTZARIAK	1.500,00	0,00
12.227.19.920.01	KEEL DATU PERTSONALENBABESERAKO	10.000,00	12.034,18
12.470.03.241.01	OARSOALDEA: ENPLEGU PLANA	2.422,80	2.422,80
13.226.99.341.00	JARDUERA PROPIOAK	1.210,00	1.210,00
13.629.01.342.03	TERRAZA EDUKI-ONTZIA ANTOKO FRONTOIAN	32.000,00	30.032,20
14.226.04.920.02	KOSTAK ETA GASTU JURIDIKOAK	19.280,00	0,00
16.601.01.153.00	KMK ZOLAKETA LANAK	42.569,22	20.423,47
16.601.02.153.00	IRISGARRITASUNA LURDES TXIKIKO RAMPA	27.800,75	0,00
16.601.02.165.00	ARGIZTAPENEAN HOBEKUNTZAK	28.093,67	25.465,68
16.601.04.153.00	KONPONKETAK LANAK SAN PEDRON	29.138,48	10.188,20
16.601.05.165.00	ANTOKO ARGIZTERIA HOBEKU GUNE ILUNETAN	13.340,93	6.643,06
16.609.01.151.00	PROIEKTUA BALORATZEKO SANTIAGO PLAZAKO P	10.000,00	0,00
17.609.01.151.02	G.ZUMARDIA PARKEO HARMAILAK BIRGAIT.	68.071,60	0,00
17.622.02.933.00	SPEDROKO ESKOLETAN ARKITEK. OSTOP.KENTZE	17.781,35	16.235,48
17.623.02.161.00	URA EDANGARRIA TRATATZEKO SIST DONIBANEN	186.816,75	370,00
GUZTIRA		1.674.188,97	626.548,05

8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berariazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.

Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.

Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:

- ⇒ Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.
- ⇒ Eta denbora tarte berean gauzatuak gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreraren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.

Gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:

- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulatuak.
- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.



**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
 PASAIAKO UDALA
 Esp. 2021FAUL0004**

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA		DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK	
PARTIDA	AZALPENA	METATUTAKOAK	EKIT.EGOZTEKOA.
02.211.02.933.00 04.227.89.231.08	GASTUAK EGUNEKO ZENTROAK JARAUSPENAREN ARABERA Proiektua, guztira:JOSEFINA JARAUSPENA	1.755,03 882.256,38 884.011,41	746,61 375.323,08 376.069,69
08.680.01.151.00	PMS 2019TIK DATORRENA Proiektua, guztira:PMS 2019TIK DATORRENA	156.989,79 156.989,79	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS 2013TIK DATORRENA Proiektua, guztira:PMS 2013TIK DATORRENA	91.221,95 91.221,95	0,00 0,00
08.609.01.151.00	VELASCO Proiektua, guztira:VELASCO BETEARAZTE SUBS	367.822,77 367.822,77	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS 2017TIK DATORRENA Proiektua, guztira:URBANIZACIO KARGAK PMS 2017	29.493,85 29.493,85	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS 2018TIK DATORRENA Proiektua, guztira:HIRIGINTZA APROBETX. PMS 2018	395.464,91 395.464,91	0,00 0,00
08.609.99.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK LURTEK Proiektua, guztira:BETEARAZTE SUBSID LARR.	10.800,00 10.800,00	0,00 0,00
08.680.01.151.00	PMS 2019TIK DATORRENA Proiektua, guztira:DESJABETZE 2016	52.012,37 52.012,37	0,00 0,00
09.609.99.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK ZUHAITZ Proiektua, guztira:BETEARAZTE SUBS. ZUHAITZAK 2019	0,00 0,00	-12.916,75 -12.916,75
01.131.01.241.01	LANBIDE PLANAK GAUZATUTA Proiektua, guztira:ENPLEGU PLANAK	0,00 0,00	-27.500,00 -27.500,00
07.226.99.432.00	ITSAS FESTIBALA Proiektua, guztira:ITSAS FESTIBALA 2020	0,00 0,00	-14.014,98 -14.014,98
02.771.01.433.00	INBERTSIOETAKO LAGUNTZAK COVID Proiektua, guztira:FORU ALDUND DIRU LAGUNTZAK COVID19	16.241,72 16.241,72	16.241,72 16.241,72
17.623.02.161.00	INBERTSIOAK URA EDANGARRIA TRATA. SISTEMA Proiektua, guztira:DFG LURRALDE ANTOLAKETA, PTE DONIBANEKOA URAREN BEZ	15.490,34 15.490,34	15.490,34 15.490,34
01.131.01.241.01	LANBIDE ENPLEGU PLANAK 2021 Proiektua, guztira:LANBIDE ENPLEGU PLANAK R-1022 2020	13.075,00 13.075,00	13.075,00 13.075,00
	GUZTIRA	2.032.624,11	366.445,02

Sarrera-kontzeptuen arabera, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapen finantzario metatuak honela zehaztuta daude:

SARREREN KONTZEPTUA	AZALPENA	DESBIDERAPEN METATU POSITIBOAK	DESBIDERAPEN METATU NEGATIBOAK	EKITALDIARI EGOZTEKO DESBIDERAP.
02.399.01.920.00 02.853.01.920.00 04.612.02.231.01	SARRERAK KONTUKO MUGIMENGUAK SARRERAK JOSEFINA 399 560 EKON AURREKOAK SARRERAK JOSEFINA 399 560 EKON Total proyecto:JOSEFINA JARAUSPENA	1.575,08 506.933,30 375.503,03 884.011,41	0,00 0,00 0,00 0,00	1.575,08 -1.008,42 375.503,03 376.069,69
08.360.01.151.00	PMS 2019TIK DATORRENA Total proyecto:PMS 2019TIK DATORRENA	156.989,79 156.989,79	0,00 0,00	0,00 0,00
08.360.01.151.00	PMS 2013TIK DATORRENA Total proyecto:PMS 2013TIK DATORRENA	91.221,95 91.221,95	0,00 0,00	0,00 0,00

ESKUB6575c3-3e17-475b-bea6-c3e82d70976f

08.360.01.151.00	VELASCO Total proyecto:VELASCO BETEARAZTE SUBS	367.822,77 367.822,77	0,00 0,00	0,00 0,00
08.360.01.151.00	URBANIZAZIO KARGAK PMS 2017 Total proyecto:URBANIZAZIO KARGAK PMS 2017	29.493,85 29.493,85	0,00 0,00	0,00 0,00
08.651.01.151,00	HIRIGINTZA APROBETXAMENDU 2018 Total proyecto:HIRIGINTZA APROBETX. PMS 2018	395.464,91 395.464,91	0,00 0,00	0,00 0,00
08.360.01.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK Total proyecto:BETEARAZTE SUBSID LARR.	10.800,00 10.800,00	0,00 0,00	0,00 0,00
01.603.01.920.00	DESJABETZEAREN SARRERAK 2016 Total proyecto:DESJABETZE 2016	52.012,37 52.012,37	0,00 0,00	0,00 0,00
09.360.01.151.00	BETEARAZTE SUBSIDIARIOAK ZUHAITZ Total proyecto:BETEARAZTE SUBS. ZUHAITZAK 2019	0,00 0,00	0,00 0,00	-12.916,75 -12.916,75
12.410.01.241.01	LANBIDE ENPLEGU PLANAK JASOTAKOA Total proyecto:ENPLEGU PLANAK	0,00 0,00	0,00 0,00	-27.500,00 -27.500,00
07.420.02.432.00	ITSAS FESTIBALA Total proyecto:ITSAS FESTIBALA 2020	0,00 0,00	0,00 0,00	-14.014,98 -14.014,98
02.720.02.432.00	FORU ALDUND DIRU LAGUNTZAK COVID19 Total proyecto:FORU ALDUND DIRU LAGUNTZAK COVID19	16.241,72 16.241,72	0,00 0,00	16.241,72 16.241,72
17.720.01.151.02	DFG LURRALDE ANTOLAKETA Total proyecto:DFG LURRALDE ANTOLAKETA, PTE DONIBANEKOA URAREN BEZ	15.490,34 15.490,34	0,00 0,00	15.490,34 15.490,34
12.410.01.241.01	LANBIDE ENPLEGU PLANAK JASOTAKOA Total proyecto:LANBIDE ENPLEGU PLANAK R-1022 2020	13.075,00 13.075,00	0,00 0,00	13.075,00 13.075,00
DESBIDERATZEAK, GUZTIRA		2.032.624,11	0,00	366.445,02

9.- SALDO KOBRA GAITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRA GAITZA %-TAN.	KOBRA GAITZA EUROTAN
2 URTETIK GORAKO ZORRAK	1.506.446,56	0,00	100,00	1.506.446,56
URTEBETETIK GORAKO ZORRAK	233.863,09	0,00	0,00	214.125,78
1. kap.: zuzeneko zergak	110.090,47	0,00	94,55	104.090,54
2. kap.: zeharkako zergak	5.399,97	0,00	99,55	5.375,67
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	117.322,15	0,00	89,08	104.510,57
5. kap.: ondare sarrerak	149,00	0,00	100,00	149,00
8. kap.: aktibo finantzarioak	901,50	0,00	0,00	0,00
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	2.150.484,96	0,00	0,00	329.232,39
1. kap.: zuzeneko zergak	410.841,06	0,00	30,96	127.196,39
2. kap.: zeharkako zergak	80.883,78	0,00	9,76	7.894,26
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	283.610,14	0,00	66,80	189.451,57
4. kap.: transferentzia arruntak	980.846,79	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	19.388,85	0,00	24,19	4.690,16
7. kap.: kapital transferentziak	363.419,99	0,00	0,00	0,00
8. kap.: aktibo finantzarioak	11.494,35	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	3.890.794,61	0,00	0,00	2.049.804,73

Bi urtez gorako aintzinasuna duten kobratzeko saldoak, %100an kobragaitz bezala kontuan hartzen dira. Gainontzeko kobratu gabeko eskubideen kasuan, banaka aztertzen dira garrantziarengatik, edota datu historikoen arabera portzentajeak aplikatuz kalkulatu dira.



**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
 PASAIKO UDALA
 Esp. 2021FAUL0004**

Eskubide bat kobragaitz jotzeak edo kobraezin izendatzeak ez du ekartzen bere anulazioa ezta baja automatikoa ere.

10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza. Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	19.320.535,62	18.260.925,22	1.059.610,40
b) Kapital-eragiketak	793.282,91	748.464,62	44.818,29
c) Aktibo finantzarioak	16.227,33	16.227,33	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	436.660,64	-436.660,64
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA (1=a+b+c+d)	20.130.045,86	19.462.277,81	667.768,05
KONTZEPTUAK	AINZATETSIT AKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	56.757,57	0,00	-56.757,57
b) Kapital-eragiketak	-0,00	0,00	0,00
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU- EMAITZA (2=a+b+c+d)	56.757,57	0,00	-56.757,57
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			611.010,48
<u>DOIKUNTZAK :</u>			
a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			626.548,05
b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak			54.431,73
c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak			420.876,75
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)			260.103,03
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)			871.113,51

ESKUBIDE 575c3-3e17-475b-bea6-c3e82d70976f

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina. Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarrikiko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarrikiko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatu dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeke erabili beharko da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarrikiko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	1. (+) funts likidoak	7.826.822,26
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak	4.710.719,22
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	2.150.484,96
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	1.740.309,65
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	819.924,61
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	2.847.549,65
400	-(+) urteko aurrekontukoak	1.295.807,09
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	1.551.742,56
	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak	4.932,64
554,559	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00
555, 5581, 5585	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	4.932,64
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)	9.694.924,47
4900,4901,4902,4903	II. Kobrantza zalantzarrikiko saldoak	2.049.804,73
	III. Gehiegizko finantzaketa lotua	2.032.624,11
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)	5.612.495,63



**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
PASAIAKO UDALA
Esp. 2021FAUL0004**

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira **9.694.924,47** eurokoa izan da; horietatik:

- ⇒ 2.049.804,73 euro, hau da, kobrantza zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.
- ⇒ 2.032.624,11 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek (2.032.624,11) osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk. 2019an egin ziren hainbat zuzkidura eta eragin negatibo horiek denak gauzatu dira 2020an. Egun ez da ezagutzen arrazoirik maila horretako zuzkidura berririk egiteko, kontu orokorreko memorian jaso daitezken arriskuen kalterik gabe.
- ⇒ 5.612.495,63 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

12.- EMAITZAK EGIATZATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	8.905.550,02
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	611.010,48
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira (egoitzako gerakina sartu gabe)	9.516.560,50
+ Zaharren Egoitza Udal Fundazioaren desegitetik eratorritako diruzaintza gerakina	+178.363,97
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	9.694.924,47

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz baliogabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- a) Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
- b) Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren kreditu gerakinetatik txerta daitezkeen kredituak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
6 00.100.00.000.00 2020	PERTSONAL GASTUAK	301.862,55			X		
6 09.200.00.153.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	11.962,86		X			
6 09.200.00.163.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.210,25		X			
6 09.200.00.162.10 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	10.333,72	X	X	X		
6 09.200.00.160.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	5.313,97	X				
6 09.200.00.153.40 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	8.201,49		X			
6 09.200.00.132.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	2.716,45		X			
6 08.200.00.151.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	8.609,15		X			
6 05.200.00.334.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	12.667,71		X			
6 05.200.00.323.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	22.630,33			X		
6 04.200.00.326.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	2.088,42			X		
6 04.200.00.231.08 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	42.505,63	X		X		
6 04.200.00.231.03 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	1.065,87	X				
6 03.200.00.132.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	22.730,52		X			
6 02.200.00.433.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	7.562,50		X			
6 15.200.00.231.11 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	10.538,95		X			
6 13.200.00.000.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	37.969,05		X			
6 12.200.00.920.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.252,61		X			
6 10.200.00.335.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.630,00		X			
6 09.200.00.933.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	28,17	X				
6 09.200.00.459.02 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	2.652,72	X	X			
6 09.200.00.334.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.851,43		X			
6 09.200.00.326.10 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	15.938,27	X	X	X		
6 09.200.00.231.08 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	5.416,26	X	X			
6 09.200.00.342.03 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	3.036,61	X				
6 09.200.00.342.02 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	14.369,53	X	X			
6 09.200.00.342.01 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	18.410,57		X			
6 09.200.00.341.00 2020	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	5.209,35		X			
6 01.220.01.000.00 2020	Material arrunt ez-inbentariagarria	656,22		X			
6 09.221.01.000.00 2020	Energia elektrikoa	14.943,48	X				
6 09.221.02.000.00 2020	Ura	120.172,85	X	X			
6 09.221.04.000.00 2020	Erregaiak eta karburanteak	29.276,90	X				
1 01.239.01.920.00 2020	KALTE-ORDAINAK	1.353,19	X				
1 02.361.01.931.00 2020	ATZERATZE INTERESAK	446,57	X				
6 04.400.00.231.02 2020	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	59.396,44			X		
6 10.400.00.335.00 2020	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	14.131,23	X				
6 09.600.00.342.02 2020	INBERTSIO ERREALAK	2.495,81		X		X	
6 03.600.00.132.01 2020	INBERTSIO ERREALAK	77.798,20				X	
6 05.600.00.334.01 2020	INBERTSIO ERREALAK	5.211,10				X	
6 08.600.00.151.00 2020	INBERTSIO ERREALAK	192.740,00		X		X	
6 08.600.00.151.02 2020	INBERTSIO ERREALAK	400.000,00			X	X	
6 05.600.00.332.10 2020	INBERTSIO ERREALAK	5.856,02				X	
6 12.600.00.920.01 2020	INBERTSIO ERREALAK	14.630,14				X	
6 09.600.00.326.03 2020	INBERTSIO ERREALAK	89.110,00				X	

**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA-
 PASAIKO UDALA
 Esp. 2021FAUL0004**

6 09.600.00.231.10 2020	INBERTSIO ERREALAK	190,91		X	X	
6 09.600.00.132.01 2020	INBERTSIO ERREALAK	22.944,96			X	
6 09.600.00.231.08 2020	INBERTSIO ERREALAK	35.000,00			X	
6 09.600.00.231.07 2020	INBERTSIO ERREALAK	19.843,98			X	
6 09.600.00.162.10 2020	INBERTSIO ERREALAK	2.000,00			X	
6 09.600.00.161.00 2020	INBERTSIO ERREALAK	32.935,80	X		X	
6 09.600.00.160.00 2020	INBERTSIO ERREALAK	5.000,00			X	
6 09.600.00.153.40 2020	INBERTSIO ERREALAK	2.000,00			X	
6 09.600.00.153.00 2020	INBERTSIO ERREALAK	41.564,19	X		X	
6 09.600.00.151.00 2020	INBERTSIO ERREALAK	10.000,00		X	X	
1 08.712.01.151.02 2020	EKARPENA DONIBANEKO ARAZKETA	150.000,00			X	
1 02.771.01.433.00 2020	INBERTSIOETARAKO LAGUNTZAK COVID19	16.241,72		X	X	
1 01.780.01.933.00 2020	KOMUNITATEEN EZOHICO GASTUAK	5.953,20			X	
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		1.959.657,85				
TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA		2.337.762,77				
KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA		4.297.420,62				

14.- ONDORIOAK

- Aurrekontu emaitza **871.113,51** eurokoa izan da, eta horrek haxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak nahikoak izan direla finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko, baita itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko ere.
- Diruzaintza gerakin likidoa, behin zalantzazko saldoak kenduta 7.645.119,74 eurokoa izan da; eta horrek entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Zenbateko horretatik **2.032.624,11** euro finantzaketa lotuari dagokio, eta gainerako **5.612.495,63** euroak gastu orokorretarako diruzaintza gerakinari.
- 2020ko foru funtsaren likidazioa negatiboa izan da aurrekontuarekiko (-10,11%), dena den Foru Aldundiak egindako lehen aurreikuspenekin alderatuta azken emaitza ez da hain negatiboa izan.
- OHZaren zergabilketak jaitsiera nabarmena izan du, Epaitegiek PPAk balio katastralean inguruan egindako erreklamazioak onartu dituztelako: 3 ekitalditako bilketaren zati bat itzuli (645.139 euro interesak barne) eta 2020koa aurreikusitakoa baino kopuru baxuagoekin likidatu da (273.030 euro gutxiago). Honek 920.000 euro inguruko galera ekarri dio udalari 2020an. 2019ko likidazioan 622,000 euroko zuzkidura gorde zen gerakin lotuan aurreko urteei zegokien itzulketen estimazio bat egin ondoren.
- Gastuaren exekuzioa guztiz baldintzatuta egon da COVID-ak sortutako egoerak ekonomian izango zuen eragina eta hauen baitan egindako sarreraren aurreikuspenak zirela eta, eta ondorioz gastuaren exekuzioa nahiko baxua izan da.

Txosten hau egiten dut, zuzenbidean hobeto oinarritutako bestelako iritzirik eragotzi gabe.

Pasaian, 2021eko martxoaren 24an
 Behin-behineko Kontu-hartzailea

Miren Itziar Miner Canflanca

